

Aurrera segitzen du bere eraldaketa planean

**EROSKI-K ALDATU DITU 'ZUREKIN' EREDURA EAE-N
DITUEN HIPERMERKATU GUZTIAK, AZKENA MAX CENTER**

- **Max Center merkataritza gunea osorik birmoldatzeko, 1,75 milioi euro inbertitu ditu**
- **Max Centerren EROSKI berriak protagonismo handiagoa ematen die sasoiko eta tokian tokiko freskoei, eta bezeroari, berriz, tratu pertsonalizatuagoa; horrez gain, elikadura osasungarria sustatzen du**
- **EROSKk ia 23 milioi euro inbertitu ditu EAEn dituen hipermerkatu guztiak Zurekin eredura aldatzeko**

Barakaldo, 2018ko urriaren 23a.- Barakaldoko Max Center merkataritza-guneko [EROSKI](#) hipermerkatuak ostegun honetan inauguratuko du horko instalazioak kooperatibaren Zurekin merkataritza-eredu berrira aldatu dituela. Hipermerkatua osorik birmoldatzeko, 1,75 milioi euro inbertitu ditu.

Erreforma horrekin, EROSKIk aldatu du EAEn dituen 21 hipermerkatuko sare osoa belaunaldi berriko dendak ezaugarritzen dituen eredura; guztira, ia 23 milioi euro inbertitu ditu, eta 236 lanpostu sorrarazi.

Max Center hipermerkatuak berrituta eta egokituta ditu instalazioak, eta apustua egingo du sasoiko elikagai freskoen eta tokian-tokian ekoiztako elikagaien alde; gainera, tratu pertsonalizatuagoa emango die bezeroei, elikadura osasungarria sustatuko du eta aurrezteko modu berriak eskainiko ditu eguneroko erosketetan. Erosketa kontzeptu berri bat dakar saltokiak, milaka kontsumitzaileen iritziak oinarri hartuta; hain zuzen, horiek kooperatibari egin dizkioten ekarpenak eta iradokizunak hartu ditu kontuan Zurekin denda eredua eratzeko.

"Ez da bakarrik saltokia birmoldatzearena, hipermerkatuak buelta erdiko bira eman du, eta horrek bereizten du beste edozein saltokiren lehiatik. Freskoak eta tokian tokiko produktuak dendaren arima bihurtu dira, eta gune bereziak ipini dizkiegu, haien ezaugarri gastronomiko eta kulturei balioa emateko. Geure konpromisoa da gastronomiaren aniztasunaren alde, tokiko nekazaritzako elikagai sektorearen iraupenaren alde eta bertako aniztasunaren alde; eta hori eskualdearen pizgarri da. Gainera, gure bezeroentzat kalitatean eta zerbitzuan hobekuntza bat egin dugu", esan du EROSKI Max Centerreko hipermerkatuko gerenteak, Jesus Javier Ozamizek.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
XURDANA FERNANDEZ

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa

Zentroan 172 langile daude, eta 1.800 prestakuntza ordu baino gehiago jaso dituzte; horrela, bezeroei irtenbide eta zerbitzu hobeak eskainiko dizkie bere 5.632 metro koadroko saltegian.

Hipermerkatuak orain produktu gehiago izango ditu freskoetatik eta ekologikoetatik eta, horri esker, kontsumitzaileak askatasun handiagoa izango du bere hautuak egiteko orduan. Atal horiek sakondu egiten dute EROSKI k elikadura osasungarriaren alde duen lehentasuna. Bezeroek arreta pertsonalizatua izango dute harategian —mahai luzeagoa du orain—, urdaitegian eta arrandegian. Okintzako eta opilgintzako produktuak ere izango dituzte, labe propioan erre berriak.

"Dagoeneko eraldaturik diren hipermerkatuetan izan dituzten emaitzek animoa ematen dute. Lehen urtean, salmenta %7 inguru igo zen", esan du Ozamizek.

Gainera, hipermerkatu berriak azken berrikuntza teknologikoak dakartza efizientzia energetikoa hobetu eta ingurumenean duen eragina gutxitzeko.

EROSKI Euskal Autonomia Erkidegoan

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien banaketan. 391 saltokiko sare komertziala du autonomia erkidegoan; besteren artean, hipermerkatu eta supermerkatu propio nahiz frankiziatuak, eta dibertsifikazio dendak; eta, horiez gain, on line supermerkatua; alde horretatik, bakarra da erosketak Nafarroako edozein etxetara eraman ditzakeena.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214
XURDANA FERNANDEZ

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[**Online prentsa aretoa**](#)